Irakasleon gida

EAEko hezkuntza publikoa

ELA

Eguneratze data: 2026ko urria

AURKIBIDEA

Liberatuen kontaktu orria…….... 3

1. Hezkuntza sistemaren antolaketa…….. 4

1.1 Maila eta kidegoa……..… 4

1.2 Izaera…… 5

1.3 Prozedura administratibo nagusiak……. 6

2. Hezkuntzako plataforma eta guneak……. 7

3. Asteko lanaldia…….. 8

4. Ahaidetasun mailak……. 10

5. Lizentziak, baimenak, lanaldi/irakastordu murrizketak eta eszedentziak……..… 11

5.1 Lizentziak……... 11

5.2 Baimenak……... 13

5.3 Lanaldi eta irakastordu murrizketak…… 15

5.4 Eszedentziak eta zerbitzu bereziak……... 17

5.5 Isiltasun administratiboak……. 18

6. Lan istripuak…….. 20

7. Nomina…….. 21

8. Ikasiz hezi: prestakuntza-jarduerak……... 24

9. Gure lan-baldintzak arautzen dituzten dokumentuak……. 25

10. ELA sindikatuaren ezaugarriak…… 26

LIBERATUEN KONTAKTU ORRIA

Kaixo, lankide:

Aurrean daukazun gida EAEko hezkuntza publikoan irakasle gisa lanean hasi berriak direnak eta hain berriak ez direnak buruan izanda atera dugu. Gida honekin oraindik ere galduta sentitzen bazara, badakizu non aurki gaitzakezun, gustura asko erantzungo ditugu zure zalantzak.

Bilbo Leire Monasterio Lander Ozkorta Leire Urkidi	irakasbilbo@ela.eus	**944 03 77 86** 688 64 84 54 747 41 18 18 688 69 23 12
Gernika-Durango Ander Alonso	irakasgernikadurango@ela.eus	**946 21 76 80** 688 64 75 81
Ibaizabal-Nerbioi Kaiet Aristi	irakasibaizabalnerbioi@ela.eus	**944 05 58 88** 688 71 24 47
Eskumaldea Ion Goldaratz	irakaseskumaldea@ela.eus	**946 02 04 50** 688 64 96 51
Ezkerraldea-Kadagua Yoli Collado Simon Setien	irakasezkerraldea@ela.eus	**944 18 02 96** 688 88 16 79 747 43 12 90
Donostia Elene Sarasola Josu Elizondo Bakarne Odriozola	irakasdonostia@ela.eus	**943 00 50 21 – 943 00 50 22** 688 69 98 19 688 85 84 28 688 78 31 84
Oarso-Bidasoa Aitor Gabilondo	irakasoarsobidasoa@ela.eus	**943 63 84 70 – 943 00 01 13** 688 64 49 75
Oria Goierri Maitane Goldaratzena Itsaso Zaldua	irakasoriagoierri@ela.eus	**943 33 64 64** 747 47 95 26 688 64 76 93
Urola-Kosta Gorka Igartua	irakasurolakosta@ela.eus	**943 00 05 28 – 943 81 34 46** 688 64 50 84
Deba Saioa Aranburu Mikel Ros	irakasdeba@ela.eus	**943 82 04 42 – 943 76 43 01** 684 81 59 95 688 64 87 76
Araba Esti Martin Ainhoa Ferron Iñigo Makazaga	irakasgasteiz@ela.eus	**945 15 43 66 – 945 15 43 56** 688 64 69 59 688 64 45 81 688 64 89 34
Erlijio irakasleak Pablo de la Iglesia	pdelaiglesia@ela.eus	688647283
Nafarroa Uxue Itoiz Mikel Larraza Rakel Arjol	irakasirunea@ela.eus	**948 00 79 30** 688 69 52 27

1. HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAKETA

Irakasleak mailaren/kidegoaren eta izaeraren arabera sailkatzen gara. Garrantzitsua da norberak bere maila/kidegoa eta izaera zein diren argi izatea akatsak eta arazoak saihesteko. Izan ere, hezkuntzan dauden prozedura administratiboak, horietan izen emateko datak, puntuazio sistemak/baremoak eta hainbat gauza gehiago, aldagai horien arabera sailkatzen dira.

1.1. MAILA ETA KIDEGOA

Maila eta kidegoa lanean ari garen espezialitatearen araberakoak dira.

MAILA	KIDEGOA	ESPEZIALITATEAK / ZERRENDAK
Maisu-maistrak	**Maisu-maistrak**	Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, PT, musika, ALE, Gorputz Hezkuntzako… irakasleak.
Irakaskuntza ertainak	**Bigarren Hezkuntza**	DBH, batxilergoa, Lanbide Heziketako espezialitate gehienak, Kirolene: biologia, instalazio elektroteknikoak, filosofia…
	Lanbide Heziketako Sektore Berezietako espezialistak	Lanbide Heziketako 10 espezialitate zehatz: estetika, soldadura, sukaldaritza eta pastelgintza, etab.
	Hizkuntzak	Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak: euskara, frantsesa, italiera, ingelesa etab.
	Arte Plastikoa eta Diseinua	IDarteko irakasleak: marrazketa teknikoa, bolumena, argazkigintza, artearen historia, etab.
	Musika	Kontserbatorioetako irakasleak: txistua, pianoa, korua etab.
	Arte Dramatikoa eta Dantza	Dantzertiko irakasleak: akrobazia, dramaturgia, interpretazioa etab.

1. Araudiak irakurtzean ez nahastu *kidego* eta *erkidego* hitzak. *Kidegoak* goiko koadroan azaltzen direnak dira, aldiz, *erkidegoak* EAE, Nafarroa etab. dira.

2. Ordezkoen araudiaren (Agindua, 2026ko maiatzaren 11koa) III. eranskinean zehaztuta daude espezialitate bakoitzean izena emateko onartzen diren titulazioak.

1.2. IZAERA

Izaera indarrean dugun lan kontratu motaren araberakoa da:

	EPEa gainditu eta plazarik lortu dute?	Ikasturte osoko lanpostu batean daude?
Ordezko funtzionarioak	✗	✗ Ikasturtean zehar hainbat ikastetxetan egiten dute lan. Gaixotasun bajak, gurasotasunak, baimenak/lizentziak eta mota horretako lanpostuak betetzen dituzte. Ez dira lanpostuaren titularrak ez jabeak, beste norbait ordezkatzen ari dira.
Bitarteko funtzionarioak	✗	✓ Ikasturte osoa, irailaren 1etik abuztuaren 31ra arte, ikastetxe berdinean egiten dute lan. Hutsik dauden, hau da, titularrik ez duten lanpostuetan (“bakanteak”), edo titularra izan arren, ikasturte osoko iraupena duten lanpostuetan lan egiten dute (titularra beste nonbait dagoelako lanean). Lanpostuaren titularrak izan daitezke, baina ez jabeak.
Praktikaldiko funtzionarioak	✓ EPE batean plaza lortzeko azken fasean daude, praktikaldian. Hori gainditzean karrerako funtzionario izendatuak izango dira EHAAn.	✓ Ikasturte osoa, irailaren 1etik abuztuaren 31ra arte, ikastetxe berdinean egiten dute lan eta horietako hilabete batzuk praktikaldi gisa baloratzen zaizkie. Lanpostuaren titularrak dira, baina ez jabeak.
Karrerako funtzionarioak	✓ EPE baten fase guztiak gainditu dituzte eta plaza lortu dute.	✓ Ikasturte osoa, irailaren 1etik abuztuaren 31ra arte, ikastetxe berdinean egiten dute lan eta beti izango dute ikasturte osoko lanpostu bat. Lanpostuaren titularrak dira. Behin-betiko destinoa lortzen dutenean lanpostuaren jabeak izango dira.

1.3. PROZEDURA ADMNISTRATIBO NAGUSIAK

Ondorengo taulan zehazten da irakasle izaeraren arabera zein prozedura administratibo nagusitan parte hartu behar duen ikasturtero.

<table>
<tr><th></th><th>Karrerako funtzionarioak</th><th>Praktikaldiko funtzionarioak</th><th>Bitarteko funtzionarioak</th><th>Ordezko funtzionarioak</th></tr>
<tr><td>Birbaremazioa</td><td colspan="2" rowspan="2">✗</td><td colspan="2">✓</td></tr>
<tr><td>Ordezkagunea</td><td colspan="2">✓
Soilik IKHAn lanposturik lortu ez badute.</td></tr>
<tr><td>IKHA esleipenak</td><td colspan="2">✓
Soilik Lekualdatze Lehiaketa bukatu eta gero, behin-betiko destinorik ez dutenek.</td><td colspan="2">✓</td></tr>
<tr><td>Lekualdatze Lehiaketa</td><td colspan="2">✓
Behin-betiko destinorik ez dutenek derrigorrez parte hartu behar dute, eta destinoa badutenek aukeran.</td><td colspan="2">✗</td></tr>
</table>



ELA Hezkuntzatik prozesu hauetako bakoitzari buruzko gida zehatz bat argitaratzen dugu. Gainera hitzaldiak antolatzen ditugu gure afiliatuei prozesuen xehetasun guztiak azaltzeko eta zalantzak argitzeko.

2. HEZKUNTZAKO PLATAFORMA eta GUNEAK

Hezkuntza Sailak plataforma edo gune ezberdinak ditu informazioa argitaratzeko eta langileekin kudeaketak/tramiteak egiteko. Garrantzitsua da guneak ezagutu eta bakoitzaren erabilerak identifikatzea.

GUNEA	ERABILERA
Hezkuntza Sailaren webgunea	www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ · Gune irekia da, ez da erabiltzailerik/pasahitzik behar. · Kontsulta gunea da, informazioa lortzeko gunea: - Legedia, araudiak, ebazpenak, deialdiak, etab. - Hezkuntzan aplikagarri diren protokoloak. - Prozesu administratiboei buruzko deialdi, berriak etab.
Hezigunea	www.hezigunea.euskadi.eus · Gune pertsonala da, bakoitzak bere erabiltzaile eta pasahitza lortuko ditu sartzen den lehen aldian. · Norberaren datuak kontsultatzeko: zerbitzu-orria, nominak, DAE-a, ikastetxea, etab. · Prozesu administratiboak kudeatzeko: izena eman, emaitzak ikusi, erreklamazioak egin, etab. · **Hezkuntza Sailarekin harremanetan jartzeko: Komunikabide (kontsultak egiteko) eta Tramitagune (eskaerak egiteko).**
Ordezkagunea	www.ordezkagunea.euskadi.eus · Gune pertsonala da, Heziguneko erabiltzaile eta pasahitz berdinak erabiltzen dira. Ordezko langileek soilik erabiltzen dute gune hau. · Ordezkapenetarako datuak ikusteko (zerrendako hurrenkera, adibidez) eta lan egoera aldatzeko. · **Eguneroko ordezkapenen esleipenean parte hartzeko: lanpostuak eskatzeko eta esleipena ikusteko.**
EIZU	Sailaren webgunea → Langileak → EIZU · Tramitagunetik egin ezin diren hainbat eskaera zehatz egiteko (IRPFa aldatu, edo lizentziaren bat, adibidez).
ELAren webgunea	ELAren webgunean Hezkuntzaren atal propioa dugu. Bertan albisteak, langileentzako oharrak, material teknikoa (gidak etab.) zein hitzarmen eta araudi nagusiak dituzue. https://www.ela.eus/eu/gizalan/irakaskuntza

EIZU eta Tramitagunean sartu ahal izateko beharrezkoa da BakQa izatea.

3. ASTEKO LANALDIA

Gure lanaldia lan-baldintzak arautzen dituen 252/2025 Dekretu Arautzailean finkatzen da. Horrez gain, Ikasturte Hasierako Ebazpena deituriko dokumentuan jasotzen da irakasleon asteko lanaldiaren banaketa (edozein zalantzaren aurrean Dekretuan jasotakoa gailentzen da). **Aurtengo ebazpenetan, bereziki lanaldi murriztuetan, oker asko daude. Sailak adierazi du ebazpenak zuzendu eta berriro argitaratuko dituela, baina gida hau argitaratzeko momentuan ez da oraindik hori eman. ELAtik defendatzen dugu Dekretutik eratorritako lanaldiaren proportzioak aplikatu behar direla eta horrela jaso ditugu zenbakiak tauletan. Parentesi artekoa Ikas. Has. Ebazpenetan datorrena da, proportzioarekin bat ez datorren kasuetan.**
Bestalde, kidego guztietan urteko lanaldia 1.462 ordukoa da.

Maisu-maistrak				
Lanaldia	**Irakastorduak gehienez** (eskola-orduak, zaintzak eta jolas orduak)	**Gainerakoak** (klaustroak, ebaluazio eta familia bilerak, prestakuntza…)	**Ordu kopurua ikastetxean**	**Gutxienez joan beharreko egunak/orduak**
Osoa	21	9	30	5 egun
Bost seiren	17 - 18 *(18)*	7- 8 *(7)*	25	-
Bi heren	14	6	20	5 eg. - 2 ord./eg.
Erdia	10 - 11 *(11)*	4 - 5 *(4)*	15	4 eg. - 2 ord./eg.
Herena	7	3	10	-

* Adinagatiko murrizketaren kasuan, gehienez 14 irakastordu.

Bigarren Hezkuntza					
Lanaldia	**Eskola-orduak gehienez**	**Ohiko egonaldikoak** (eskola-orduak, familiei arreta, zaintzak eta jolas orduak, dep. bilerak eta formakuntza)	**Gainerakoak** (klaustroak, ebaluazio bilerak…)	**Ikastetxeari eman beharreko ordu kopurua**	**Gutxienez joan beharreko egunak/orduak**
Osoa	17	23	7	30	5 eg. - 3 ord./eg.
Bost seiren	14	19 *(20)*	6 *(5)*	25	-
Bi heren	11 *(12)*	15 *(16,5)*	5 *(3,5)*	20	4 eg. - 2 ord./eg.
Erdia	8-9	11 – 12 *(12)*	3 – 4 *(3)*	15	3 eg. - 2 ord./eg.
Herena	6	8 *(8,5)*	2 *(1,5)*	10	2 eg. - 2 ord./eg.

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak (LHII) eta HHI/EPA

Lanaldia	Eskola-orduak gehienez	Ohiko egonaldikoak (eskola-orduak, familiei arreta, zaintzak eta jolas orduak, dep. bilerak eta formakuntza)	Gainerakoak (klaustroak, ebaluazio bilerak…)	Ikastetxeari eman beharreko ordu kopurua	Gutxienez joan beharreko egunak/orduak
Osoa	17	23	7	30	5 eg. - 2 ord./eg.
Bost seiren	14 *(-)*	19	6	25	5 eg. - 2 ord./eg.
Bi heren	11 *(-)*	15	5	20	4 eg. - 2 ord./eg.
Erdia	8-9 *(-)*	11	4	15	3 eg. - 2 ord./eg.
Herena	6 *(-)*	8 *(-)*	2 *(-)*	10 *(-)*	2 eg. - 2 ord./eg.

Hizkuntza Eskola Ofizialak (HEO) – Arte Plastikoa eta Diseinua (IDarte) – Musika (Kontserbatorioak) – Arte Dramatikoa eta dantza (Dantzerti) – Kirolene

Lanaldia	Eskola-orduak gehienez	Ohiko egonaldikoak (eskola-orduak, familiei arreta, zaintzak eta jolas orduak, dep. bilerak eta formakuntza)	Gainerakoak (klaustroak, ebaluazio bilerak…)	Ikastetxeari eman beharreko ordu kopurua	Gutxienez joan beharreko egunak/orduak
Osoa	17 *(- / 17 kidegoaren arabera)*	23	7	30	Kidego bakoitzaren xehetasunak dagokion ebazpenean kontsultatu
Bost seiren	14 *(-)*	19 *(-)*	6 *(-)*	25 *(-)*	
Bi heren	11 *(- / 12 kidegoaren arabera)*	15 *(15 / 16,5 kidegoaren arabera)*	5 *(3,5 / 5 kidegoaren arabera)*	20	
Erdia	8-9 *(- / 9* kidegoaren arabera)	11 – 12 (11 / 12 kidegoaren arabera)	3 – 4 *(3 / 4 kidegoaren arabera)*	15	
Herena	6 *(- / 6 kidegoaren arabera)*	8 *(- / 8 / 8,5 kidegoaren arabera)*	2 *(- / 1,5 kidegoaren arabera)*	10 *(- / 10 kidegoaren arabera)*	

4. AHAIDETASUN MAILAK

Ahaidetasun-mailek senideak mailetan banatzen dituzte eta maila horiek, besteak beste, lizentzia eta baimenak hartzerakoan dute eragina.

Langilea	**1. MAILAKOAK**
	Ezkontidea/Izatezko bikotea – Alaba/Semea – Gurasoa – Erraina/Suhia – Amaginarreba/Aitaginarreba
	2. MAILAKOAK
	Ahizpa-arreba/Neba-Anaia – Koinata/Koinatua – Amona/Aitona – Biloba
	3. MAILAKOAK
	Izeba/Osaba – Iloba – Birramona/Birraitona – Birloba
	4. MAILAKOAK
	Lehengusina/Lehengusua – Izeba/Osaba zaharra



Kode zibilean arautua dagoen bezala, izatezko bikotearen edo ezkontidearen senideak norberarenak bezalakoak hartzen dira, adibidez: nire ama niretzat lehenengo ahaidetasun-mailako senidea den bezala, nire ezkontidearen ama ere lehenengo ahaidetasun-mailako senidea da niretzat.

5. LIZENTZIAK, BAIMENAK, LANALDI / IRAKASTORDU MURRIZKETAK ETA ESZEDENTZIAK

5.1. LIZENTZIAK

Atal honetako informazioa 252/2025 Dekretu Arautzailean (irakasleon “hitzarmenean”) jasota dago. Edozein izaerako langileek eska ditzakete, eskubidea baitira. Ez da onarpenik jaso behar horiek disfrutatzeko, hau da, langileak eskaera egin behar du, baina epearen barruan eskatzen badu eta dagokion dokumentazioa aurkeztuz, ezin zaio lizentzia ukatu. **Lizentzia guztietan ordainsariak osorik jasotzen dira, baina lanaldiaren proportzioan, eta kotizatu ere egiten da.**

31. art: istripu edo gaixotasuna	Autom.	Medikuak baja ematen duenetik alta eman arte edo kontratua bukatu arte irauten du. Baja abuztuko hilabetean izan bada, disfrutatu gabeko oporrak daude. 18. baja hilabetetik aurrera baliaezintasuna eskatu behar da soldata osorik jasotzeko.
32. art: gurasotasuna: erditzea, adopzioa edo harrera	Tramitag. EIZU	19/21 aste guraso bakoitzak: 6 nahitaezkoak + 11 borondatezkoak + 2 GKEk hobetutakoak + 2 (soilik nahitaezkoak ez diren aste guztiak jarraian, etenik gabe, hartzen badira). Gurasobakarreko familien kasuan 13 aste gehigarri. Erditze anizkoitza edo ezgaitua bada, 2 aste gehiago seme-alaba bakoitzeko. Erditze goiztiarrak edo ospitalean egon behar bada (erditu eta hilabete bitartean), behar adina, 13 aste gehienez. ***ELAren familia gidan informazio osatua.***
32. c) art: edoskitzea	Tramitag. EIZU	Egunero ordu bat haurrak urtebete bete arte. Edoskitze metatua: 28 lanegun lanaldi osoan badago. Edoskitze ez-metatua: egunero ordu bat edo ordu erdiko bi zati.
33. 1. art: norberaren ezkontza edo izatezko bikotea	EIZU	20 egun natural, ezkontza eguna barne. Ezkondu aurretik edo ondoren hartu daiteke, baina egun hori aldi horren barruan sartuko da. Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da.
33. 2. art: senide baten ezkontza edo izatezko bikotea	EIZU	2. ahaidetasun-maila arteko senideen kasuan. Egun bat, ezkontza egunean bertan (2 egun natural gehiago 150km baino urrunago bada). Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da.
36. art: nahitaezko betebehar publikoak edo norberaren betebeharrak	Zuzend.	Behar adina denbora baldin eta lanorduetatik kanpo egiterik ez baldin badago. Justifikatu beharra dago. Adibideak: epaitegietako zitazioak, hitzordua NANa, pasaportea edo gidabaimena eskuratzeko edo berritzeko, etab.
37. art: ohiko etxebizitza aldatzea	EIZU	2 lanegun, erroldatu eta 15 eguneko epean hartzeko. Erroldatze-egiaztagiria eskabidea egin ondoren aurkez daiteke, baina inoiz ez lizentzia amaitu baino beranduago. Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da.

<table>
<tr><td>34. art: senideen gaixotasun larri edo heriotza</td><td>EIZU</td><td>Lizentziaren gehieneko iraupena taulan azaltzen dena da, beti ere, gertakariak irauten duen bitartean (senidearen ospitaleratzea, adibidez). Alta ematen badiote, lizentzia moztu egiten da. Egunak ez dira nahitaez jarraian hartu behar. Langilearen bizitokia hartzen da herritzat.

<table>
<tr><td>Gaixotasun larria
Istripua - Ebakuntza
Ospitaleratzea
Etxeko ospitaleratzea</td><td>Bizikidea
1. mailako senideak
2. mailako senideak</td><td rowspan="2">5 lanegun + 2 egun natural gehiago 150km baino gehiagora bada</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Heriotza</td><td>1. mailako senideak</td></tr>
<tr><td>2. mailako senideak
Maila urrunagokoak, elkarrekin bizi badira</td><td>3 lanegun herri berean bada

4 lanegun beste herri batean bada + 2 egun natural gehiago 150km baino gehiagora bada</td></tr>
</table>
</td></tr>
<tr><td>38. art. ordezkaritza sindikala</td><td>Tramitag.</td><td>Indarrean dagoen legediaren arabera.</td></tr>
<tr><td>39. art: indarkeria matxistaren biktima</td><td>Tramitag.</td><td>Lanaldia murrizteko edo ordutegia moldatzeko aukera. Xehetasunak artikuluan.</td></tr>
<tr><td>40. art: azterketetara joatea</td><td>EIZU</td><td>Ikastetxe ofizial edo homologatuetako azterketa eguna (2 egun natural gehiago 150km baino gehiagora bada).</td></tr>
<tr><td>41. art: EAEko proba ofizialetara joatea</td><td>EIZU</td><td>Administrazio Orokorrean barne-sustapen bidez sartzeko (kasu honetan, karrerako eta praktikaldiko funtzionarioak soilik) edo Hezkuntza Sailak deitutako hautaketa-prozesuetara joateko. Behar adina denbora joan etorria eta probak egiteko. Egiaztagiria aurkeztu beharko da.</td></tr>
</table>

Hurrengo azpiataletan honako laburdurak erabiliko dira:

Langile izaerak		Kotizatu / Soldata	
	K → Karrerako funtzionarioa P → Praktikaldiko funtzionarioa B → Bitarteko funtzionarioa O → Ordezkoa		B → Bai E → Ez % → Lanaldiaren proportzioan

5.2. BAIMENAK

Atal honetako informazioa 252/2025 Dekretu Arautzailean jasota dago. Baimenak baliatu ahal izateko eskaera epearen barruan eta dagokion dokumentazioa aurkeztuz egin behar dira, eta gainera, onarpena jaso behar da.

	Langile izaera	Kotiz. Sold.		
32. d) art: 8 asteko guraso-baimena	KPBO	B / E	EIZU	8 urte arteko adin txikikoak zaintzeko (seme-alabak edo etxean hartutako adin txikikoak). Zortzi asteko baimena, adingabeak zortzi urte bete arte. Jarraian edo aste osotako zatitan har daiteke. Eskaera 15 egun baliodun lehenago egin behar da.
44. art: gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten senideak zaintzea	KPB	B / B	EIZU	2. maila arteko senideak edo urrunagokoak elkarrekin bizi badira. 50 ordu gehienez ikasturte bakoitzeko. Salbuespen gisa, orduak meta daitezke. Oro har, egunean gehienez 2 ordukoa, lanaldiaren hasieran edo bukaeran. Baimena berriztagarria baldin bada, eskaera ez da urtero eskatu behar.
45. art: lanpostuarekin zuzeneko zerikusia duten ikasketak egitea	-	B / B	Tramitag.	Baimen hau ematea hautazkoa da, kopuru mugatua baitago.
46. art: lanpostuarekin zuzeneko zerikusia EZ duten ikasketak egitea	K	B / E	Tramitag.	Ikasketa ofizialak (gutxienez 30 ECTS) edo ikerketa-proiektuak egiteko. Ikasturte bateko iraupena du. Salbuespen gisa, bigarren ikasturte baterako luzatu daiteke, kotizazioa eta lanpostua mantendu gabe.
47. art: kontsulta, tratamendu edo azterketa medikoetara joatea	KPBO	B / B	Zuzend.	Norberaren kontsultetarako eta adin txikiko seme-alabak medikuarengana edo larrialdietara laguntzeko, gehienez 4 ordu eguneko. Salbuespen gisa luza daiteke. Erditzea/adopzioa prestatzeko teknikak ikastera eta jaio aurreko azterketak egitera joateko, gehienez astean 4 ordu. Bi kasuetan lanorduetatik kanpo ezin bada egin.
48. art: odola eta organoak ematea	KPBO	B / B	Zuzend.	Beharrezkoa den denborarako soilik.

49. art: zientzia, teknika, lanbide, elkargo, elkarte edo sindikatuetara joatea	KPB	B / E	Tramitag. Zuzend.	Lanpostuaren eduki funtzionalarekin lotuta egon behar du. Lehen 5 egunak ordaindu egingo dira, ondorengo egunak ez.
50. art: hautetsiei dagozkien eginkizunak betetzea	KPB	B / B-%	EIZU	Behar adina denbora, beti ere orduak guztira ez badira urteko lanaldiaren %10 baino gehiago. Bestela, lanaldia murriztu daiteke: bostena edo herena (KPB), edo erdia (KB). Bostena murriztuta, ordainsariak osorik; erdia eta herena murriztuta, ordainsariak proportzioan (karguengatiko osagarrietan ezik).
51. art: goi-mailako kirolarientzako	KPB	B / B	Tramitag.	Nazioarteko lehiaketetara eta prestaketa kontzentrazioetara joateko, lehiaketa egunen iraupen berarekin. Probak 150 km-tik gorako distantziara badaude, ibilbide bakoitzeko egun gehigarri bat, ez badira lehiaketa-egunetan egin. Eskaera gutxienez 10 lanegun lehenago egin behar da.
52. art: gaua igarotzeko egonaldiak konpentsatzea	KPBO	B / B	Zuzend.	Egun eta erdiko konpentsazioa pernokta egun bakoitzeko. Bi egunekoa pernokta jaiegunean bada. Konpentsazioa ekaineko eskolarik gabeko egunetan hartuko da, edo hortik kanpo, irakaskuntza-jarduerari kalterik egiten ez bazaio.
53. art: urte sabatikoa: partzialki ordaindutako baimena	KPB	B / %	Hezig.	Eskaerak: karrerakoek ikasturte bakoitzaren urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarte, biak barne; bitartekoek abuztuaren 1etik irailaren 30era. 5 ikasturtetako zikloak: lehenengo lau ikasturteak lanean eta bosgarrenean sabatikoa. Bost urte horietako bakoitzean ordainsarien %84 jasotzen da. Bitarteko langileek aurreko 5 ikasturteetan ikasturte osoko lanpostua bete behar izan dute, eta sabatikoaren zikloaren 5 urteetan ere.
54. art: ordaindu gabeko baimena	KPB	B / E	EIZU	1. Ikasketa ofizialak: gehienez 4 hilabete jarraian, urtean behin. 2. Garapen-bidean dauden herrialdeetako misioak: gutxienez 3 hilabete eta gehienez 2 urte, bost urtetik behin. 3. Askatasunaz gabetzeko zigorrak betetzen ari direnei bisitak (2. ahaidetasun maila artekoak eta lanorduz kanpo ezin denean): behar den denbora. 4. Administrazioan sartzeko hautaprobak: behar den denbora. 5. Arrazoi pertsonalak: ikasturte osoa edo erdia (iraila-urtarrila edo otsaila-ekaina). 6. Norberaren gauzetarako: gehienez 4 hilabete bi urtean behin (baimena hartzen den lehen egunean hasten dira zenbatzen bi urteak). Ez dute opor egunik sortzen. 3. eta 4. kasuetan izan ezik, urtebetez zerbitzu aktiboan egon behar izan da eskaera egiteko.
54 bis art: familia-arrazoi larriak	KPBO	B / B	Zuzend.	Langileak eskubidea izango du lanetik alde egiteko ezinbesteko kasuetan, senideekin edo bizikideekin lotutako premiazko familia-arrazoiengatik beharrezkoa denean, gaixotasuna edo istripua dela-eta berehala joan behar denean. Justifikatu beharko da.

5.3. LANALDI ETA IRAKASTORDU MURRIZKETAK

Atal honetako informazioa 252/2025 Dekretu Arautzailean jasota dago. Murrizketak baliatu ahal izateko eskaera epearen barruan eta dagokion dokumentazioa aurkeztuz egin behar dira, eta gainera, onarpena jaso behar da.

	Langile izaera	Kotiz. Sold.		
35. art: lehenengo mailako senideen gaixotasun oso larria	KPBO	B / B	Tramitag.	Lanaldia herena edo erdia murriztea, hilabete batez. Ahaidetasun urrunagoko senideentzat ere aplikagarria da, baldin eta elkarrekin bizi badira. Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da. Lizentzia bat da (ezin da ukatu).
42. art: adin txikikoak, ezgaituak edo 2. maila arteko senideak zaintzea	KPBO	B / %	EIZU	Lanaldia herena edo erdia murriztea. Adin txikikoak 12 urte artekoak direnak kontsideratuko dira. Ahaidetasun urrunagoko senideentzat ere aplikagarria da, baldin eta elkarrekin bizi badira. Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da.
43. art: minbizia edo gaixotasun larria duten adin txikikoak zaintzea	KPBO	B / B	Tramitag.	Lanaldia gutxienez erdira murriztea. Adin txikikoak 18 urte artekoak direnak kontsideratuko dira. Gehienez seme-alabak 23 urte bete arte luza daiteke. Jardun osora meta daiteke Hezkuntza Sailak argitaratutako jarraibidearen baldintzak betez gero. Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da.
55. 1. art: norberaren osasun arrazoiak	KPB	B / B	Hezig.	Etapako gehieneko irakastorduen herena murriztea, gehienez bi ikasturtez (luzatzeko aukera Segurtasun eta Osasun Batzordearen balorazioaren menpe).
55. 2. art: norberaren interesa, borondatez	KB	% / %	EIZU	Lanaldia herena edo erdia murriztea, gutxienez urtebeteko iraupenarekin. Baimena eten ondoren, 3 urte igaro beharko dira berriz ere eskatu ahal izateko, eta beti ere, zerbitzu aktibora itzuli eta bi urte igaro baldin badira. Murrizketa erdikoa bada, metatu ahalko da. Eskaera hilabete eta 10 lanegun lehenago bitarte egin behar da.

55. 3. art: adinagatiko murrizketa	KPB	B / B	Hezig.	Deialdi propio baten bitartez kudeatzen da, beraz, eskaera epeak eta baldintzak deialdian azaltzen dira, eta ikasturtero aldaketak izan ditzake. **a) URTEKAKO GOZAMENA:** · 59 urte: etapako gehieneko irakastorduekiko 2 irakastordu astean. Soilik maisu-maistren kidegokoek eska dezakete, ikastetxeen berezko jardueretarako. Metatzeko aukera dago. · 60 eta 65 urte bitartean: irakastorduen herena murrizten da. · 65 urtetatik aurrera: irakastorduen erdia murrizten da baldin eta EAEko ikastetxe publikoetan 15 urtez jarraian edo 20 urtez etenekin zerbitzuak eman badira. Zerbitzu denbora laburragoa bada, irakastorduen murrizketa herenekoa izango da. Irakastordu horiek ikastetxeko beste zeregin batzuetara bideratuko dira. **b) GOZAMEN METATUA:** · 60 eta 65 urte bitartean: gehienez ere urtean 4 hilabete metatzen dira. Metatzeko aukera erretiroa hartu aurreko epean baliatu beharko da. · 65 urtetik aurrera: gehienez ere urtean 4 hilabete metatzen dira. Guztira gehienez 18 hilabete metatu ahalko dira (urtebete eta 6 hilabete). Metaketa guztietarako EAEko ikastetxe publikoetan 15 urtez jarraian edo 20 urtez etenekin zerbitzuak eman behar izan dira. Metaketa onartzeko, irakasleak eskabidea eta erretiro data zehaztu beharko ditu.

5.4. ESZEDENTZIAK ETA ZERBITZU BEREZIAK

Atal honetako informazioa Euskal Enplegu Publikoari buruzko legean jasota dago. Aipatutakoaz bestelako eszedentzia batzuk daude ere: familia elkartzeko borondatezko eszedentzia (143. art), genero indarkeriagatiko borondatezko eszedentzia (145. art), indarkeria terroristagatiko borondatezko eszedentzia (146. art) eta borondatezko eszedentzia pizgarriduna (147. art).

	Langile izaera	Kotiz. Sold.		
141. art: borondatezko eszedentzia, destino erreserbarik gabe	K	E / E	Tramitag.	Eskaera egin ahal izateko baldintza: administrazio publikoan zerbitzuak eman izana aurreko bi urteetan, jarraian. Eszedentziak gutxienez bi urteko iraupena izango du, eta destinoa galdu egiten da. Berriro eszedentzia eskatu ahal izateko hiru urte igaro behar dira.
142. art: borondatezko eszedentzia, lanpostu eta destino erreserbaduna	K	E / E	Tramitag.	Eskaera egin ahal izateko baldintza: administrazio publikoan zerbitzuak eman izana aurreko hiru urteetan, jarraian. Eszedentziak gutxienez sei hilabete eta gehienez urtebeteko iraupena izango du, eta destinoa gordetzen da. Eszedentzia bukatzerakoan, 30 egun natural daude zerbitzu aktibora itzultzea eskatzeko. Hori egiten ez bada, borondatezko eszedentziara (141. art) pasatzen da, eta destino erreserba galtzen da. Berriro eszedentzia eskatu ahal izateko hiru urte igaro behar dira.
144. art: senideak zaintzeko eszedentzia	KPBO	B / E	EIZU	Bi mota daude: a) Seme-alabak: gehienez hiru urteko iraupena izango du, jaiotegunetik edo adopzio/harrera datatik zenbatzen hasita. b) Senideak: 2. maila artekoak, ordaindutako lanik egiten ez badute, eta adina, istripu, gaixotasun edo desgaitasun arrazoiengatik ez badira gai euren kabuz moldatzeko. Gehienez hiru urteko iraupena izango du. Eszedentzia-aldi bakarra izango da subjektu kausatzaile bakoitzeko, eta zatituta hartu ahal izango da zerbitzuaren beharrekin bat etorriz gero. Lanpostua eta destinoa gordetzen dira karrerako funtzionarioen kasuan, behin-behinekoen kasuan ez.
148. art: sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia	K	E / E	Tramitag.	Beste kidego edo eskala batean jarduteko eszedentzia. Zerbitzu-harreman berriak dirauen bitartean iraungo du. Behin bukatuta, 30 egun naturaleko epea dago zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera egiteko. Ez dira ez lanpostua ez destinoa gordetzen eta benetako destinoa duten administrazio publikoaren araubidea aplikatuko da.
138. art: zerbitzu bereziak	K	E / E	Tramitag.	Nazioarteko erakundeetako, diputatu, senatore, Eusko Legebiltzarreko, Batzar Nagusietako, etab. kide publikoa izateko. Lanpostua gordetzen da. Behin bukatuta, 30 egun naturaleko epea dago zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera egiteko. betetzen duten lanpostuari edo karguari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte.

5.5. ISILTASUN ADMINISTRATIBOAK

Irakasleok Hezkuntza Sailari eskaera bat egiten diogunean sarritan ez dugu erantzunik jasotzen, eta isiltasun administratibo horrek zer esan nahi duen zalantzan egoten gara. Egindako eskaera bakoitzaren kasuan, adierazitako epean berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, isiltasun horren esanahia honakoa izango da:

EZ-ONARTUTZAT jotzen dira		
PROZEDURA		**GEHINEZKO EPEA**
Bateragarritasunak	Jarduera pribatuan aritzeko	2 hilabete
	Sektore publikoan bigarren lanpostu edo jarduera bat betetzeko	3 hilabete
Norberaren gauzetarako baimenak, ordaindu gabeak edo partzialki ordainduak (segidako 15 egunetik gorako iraupena)		
Gora jotzeko helegitea		

ONARTUTZAT jotzen dira	
PROZEDURA	**GEHINEZKO EPEA**
Bikotekidearen, 1. Mailako senideen eta bizikideen gaixotasun edo istripu larriagatiko, ospitaleratzeagatiko edo etxean atseden hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoagatiko lizentzia	Egun 1
Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo 1. mailako senidearen heriotza	
Jaiotzagatiko lizentzia amentzat eta/edo gurasoentzat	
Nahitaezko betebehar publiko edo pertsonalak betetzeko lizentzia	3 egun
Adopzio, zaintza edo harreragatiko lizentzia	
Azterketetara joateko lizentzia	
Norberaren edo senideen ezkontzagatiko edo izatezko bikotea eratzeagatiko lizentzia	10 egun
Ohiko etxebizitzaz aldatzeko lizentzia	

1. mailako senideen gaixotasun oso larriagatik lanaldia murrizteko lizentzia	3 hilabete
Hamabi hilabete baino gutxiagoko seme-alabaren edoskitzeagatiko lizentzia	
Zortzi asteko guraso-baimena	
Sindikatuen edo langileen ordezkaritza-lanak egiteko lizentzia	
Emakumeen aurkako indarkeria matxistagatiko lizentzia	
EAEko Administrazio Orokorrean sartzeko probetara eta Hezkuntza Sailak deitutako hautaprobetara joateko ordaindutako lizentzia	
Adingabeak edo egiaztatutako aniztasun funtzional fisiko, psikiko edo sentsoriala duten pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketarako baimena	
Minbizia edo bestelako gaixotasun larriren bat duen adingabeko semea edo alaba zaintzeko baimena	
Gaixotasun kronikoa edo mugitzeko arazoak dituzten senitartekoak zaintzeko 50 orduko baimena	
Lanpostuaren eginkizunarekin zerikusia duten lanbide-hobekuntzako ikasketak egiteko baimena	
Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena	
Zientzia, teknika, lanbide, elkargo, elkarte edo sindikatu arloko ekitaldi kolektiboetara joateko baimena	
Karguaren ondoriozko eginkizunak betetzeko baimena instituzioetako hautetsia	
Norberaren edo ordaindu gabeko gauzetarako baimenak (segidako 15 egunetik beherako iraupena)	
Egonaldiak gaua igarotzearekin konpentsatzeko baimena, eskatutako baimena segidako 15 egun baino gutxiagokoa denean	
Odola edo odol-osagaiak emateagatik ordaindutako baimena	
Eliteko kirolarientzako baimena	

6. LAN ISTRIPUAK

Ondorengo jarraibideak Hezkuntza Sailak argitaratutakoak dira, Lan Arriskuen Prebentziotik: https://labur.eus/LANISTRIPUAK



Jakinarazpena: Bai Hezkuntza Saileko langileen bai zentroan dagoen beste edozein langileren lan-istripuen berri emango da, bajadun edo baja gabekoa izan arren. Hezkuntza Saileko langilen istrupuak LAPZri eta Ordezkaritzari jakinaraziko zaizkie beti; beste langile batzuenak berriz, LAPZri bakarrik.
Premiazko jakinarazpenen kasuan, 24 ordu baino lehen lakuaprebentziohezkuntza@euskadi.eus helbidera jakinarazi behar da. Jakinarazpen horrek ez du salbuesten ondorengo ohiko jakinarazpena, formulario bidez egitetik.

7. NOMINA

Hezigunea → Eremu pertsonala → Nire datu laboralak → Nominak eta T10 → Urtea eta hilabetea aukeratu

<table>
<tr><th></th><th>KODEA</th><th>KONTZEPTUA</th><th>AZALPENA</th></tr>
<tr><td rowspan="5">Langile guztiek jasotzen ditugunak</td><td>1000</td><td>Soldata</td><td rowspan="5">Kode hauei dagozkien ordainsarien kantitate zehatzak desberdinak dira kidego bakoitzean (momentuko soldata taulak kontsultatu).</td></tr>
<tr><td>2004</td><td>Destino osagarria</td></tr>
<tr><td>2103</td><td>Berariazko osagarria</td></tr>
<tr><td>2104</td><td>Publik. Irakas. konplexutasuna</td></tr>
<tr><td>2108</td><td>CE Kapitalizazioa</td></tr>
<tr><td rowspan="5">Antzinatasuna</td><td>1020
1027</td><td>Hirurtekoak</td><td>Funtzio Publiko osoko antzinatasun metatua: Hezkuntzan, Osakidetzan etab. osotara langileak dituen lan egun kopurua.

1080 egun multzo bakoitza hirurteko bat da. Hirurteko bakoitzaren ordainsari kantitatea ezartzeko, 1080garren egun bakoitzean langilea zein kidego/administraziotan dagoen begiratzen da. Hirurteko bakoitza betirako jasoko da ezarritako kantitate horretan, langileak kidegoz edo administrazioz aldatu arren.</td></tr>
<tr><td>2130</td><td>1. seiurtekoa</td><td rowspan="3">Hezkuntza Publikoko antzinatasuna: Hezkuntza Publikoan lanean betetzen diren sei urte bakoitzarengatik jasotzen dira (2. eta 3. seiurtekoak kapitalizatuta daude 2108 kodean).</td></tr>
<tr><td>2135</td><td>4. seiurtekoa</td></tr>
<tr><td>2140</td><td>5. seiurtekoa</td></tr>
<tr><td colspan="3">Seiurtekoak independenteak dira hirurtekoetatik. Hau da, hirurtekoak ez dira seiurteko bihurtzen, baizik eta bai batzuei zein besteei dagozkien ordainsariak jasotzen dira antzinatasuna metatu ahala.</td></tr>
<tr><td>Ardurak</td><td>2145</td><td>Arduraren araberakoa</td><td>Hainbat ardura daude: tutorea, ziklo koordinatzailea, zuzendaria, mintegi burua…

Langileak momentu berean ardura bat baino gehiago baldin balditu, ordainsari kantitate handiena duena soilik jasoko du. Kargua osorik jasotzen da lanaldia osoa zein murriztua izan.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Maisu-maistren kidegoko pizgarri batzuk</td><td>2640</td><td>Maisu-maistra DBHn</td><td rowspan="2">Maisu-maistrak izanik, euren kidegoa baino goragokoa den destino batean lan egiteagatik jasotzen den pizgarria.</td></tr>
<tr><td>2146</td><td>Maisu-maistra HHI/EPAn</td></tr>
</table>

Hezkuntza Sailaren webgunean, Ekonomia-erregimena atalean, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak jarraibide bat dago, irakasleon nominari buruzko argibide eta azalpenekin: https://labur.eus/NOMINENAZALPENOSATUA

ORDAINSARIA: ikasturtero pobreagoak gara

Bizitzeko behar ditugun ondasun eta zerbitzuak etengabean garestitu ohi dira. Garestitze hori KPI indizearen arabera kalkulatzen da eta irizpide horrek markatzen digu urte batetik bestera jasotako prezioen garestitze edo beheratzearen portzentaia.

2010. urtetik aurrera gure soldaten igoerak bizitzaren garestitzea baino baxuagoak izan dira: 2010-2025 urteetan KPIa %40 igo den bitartean, gure soldatak %20 igo dira. Urtero eros-ahalmena galdu dugu, beraz.

Urte askotan zehar negoziazio kolektiborako gure ahalmena bahitu dute EAEko eta Nafarroako Gobernuek. Ezinbestean gure oinarrizko lan-baldintzak Madrilen erabakitakoaren baitakoak izan behar direla saldu nahi izan digute. Urteetan defendatu dute soldatak adosteko eskumenik ez zutela.

Greba eta mobilizazio indartsuen bidez bakarrik lortu dugu Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailak inposatutako markoa apurtzea. Hezkuntza Sailaren menpeko sukalde eta garbiketan edota irakaskuntza publikoan agerian geratu ziren Eusko Jaurlaritzaren gezurrak.

2025ean milaka langilek bultzatutako greba eta mobilizazioen ondoren, Madrili lotu gabeko soldata igoerak adostea lortu genuen. Sukalde eta garbiketan galdutako eros-ahalmena berreskuratzen hastea lortu zen sinatutako akordioarekin. Irakasleen kasuan, aldiz, gainerako sindikatuek adostutako edukiek ez zutenez galdutako eros-ahalmenik berreskuratzen, ELAk ez zuen akordioa sinatu.

Hala ere, azpimarratzekoa izan zen 2024-2025 ikasturtean egindako borroka. Grebaren bidez urteetan inposatutako markoa gainditu genuen eta administrazio publikoko gainerako hainbat sektoreentzat erreferentzia markatu. Emaitza gure gogokoa ez izan arren, hurrengo urteetan jorratu beharreko bideari hasiera eman genion.

EAEko eta Nafarroako Gobernuek gure soldatak hobetzeko ahalmena dute. Borondatea da falta zaiena eta borondate falta horri greba eta mobilizazio bidez bakarrik egin ahal zaio aurre.

LANGILEON POBRETZEARI EZ!
HEMEN LAN EGIN, HEMEN ERABAKI!

ITZARRI

Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundea (BGAE/EPSV) da Itzarri, hau da, Euskadiko Administrazio Orokorreko langileok dugun pentsio plan baten modukoa. Soldataren proportzio baten ekarpena egin behar digu Hezkuntza Sailak hilabetero. Erretiroan, Ezintasun Iraunkorrean, heriotzan edo iraupen luzeko langabezian eskura dezakegu ordurarte osotara metatutakoa. Nomina bakoitzean urte fiskal zehatz horretan ordurarte metatutakoa azaltzen da (beheko aldean). Itzarriren webgunean norberak bere informazio guztia ikus dezake.

2010a arte EJren ekarpen hori %3koa izatea adostu zen (hurrengo urteetan aplikatu beharrekoa finkatu zuen akordio horrek). Aldiz, murrizketekin hasi eta 2012-2017 bitarte %0koa izan zen ekarpena, hau da, EJak ez zuen ekarpenik egin; 2018an %0,5koa izan zen; 2019an %1koa; 2020an %1,5koa; eta 2021etik 2026ra %2koa.

Hezkuntza Sailak etengabe eta bide guztietatik murrizten dizkigu ordainsariak!

NOMINA AURRERATZEA

Bi modalitate daude:

A. AURRERAKINA (252/2025 Dekretu Arautzailearen 61. artikuluan arautua)

Jardun aktiboan dauden langileek eska dezakete, beti ere, ez bada aurreikusten lan kontratua amaituko zaienik hilabete bukaera baino lehen. Langileek beren hileko soldata likidoaren %100erainoko aurrerakin arrunta jasotzeko eskubidea dute, interesik gabe. Aurrerakin hori eskatutako hilabeteari dagokion nominan konpentsatu beharko da.

B. NOMINA-AURRERAPENA (252/2025 Dekretu Arautzailearen 62. artikuluan arautua)

Jardun aktiboan dauden karrerako funtzionarioek eska dezakete, taulan zerrendatzen diren gertaera bat ematen bada. Itzulketak inongo interesik gabe egiten dira. Eskaera gehienez ere bi hilabetetan egin daiteke, eskaera eragin duen gertaeraren egunetik aurrera zenbatuta. Salbuespen batzuetan, eskaera gertaeraren aurreko hilabetean ere egin daiteke. Ezin da beste nomina aurreratzerik eskatu martxan dagoenaren kantitate osoa itzuli arte eta nomina-aurrerapena kitatzen denetik gutxienez 6 hilabete igaro arte.

Gertaera	Gehieneko kantitatea	Itzultzeko gehieneko epea	Beste nomina aurreratze bat eskatzeko epea
Etxebizitza erostea	12.000€	48 hilabete	10 urte
Lan-ibilgailua	7.500€	24 hilabete (Lanerako autoa: 36 hilabete)	5 urte
· Ezkontza edo bikotekidearekiko bizikidetza iraunkorra hastea · Dibortzioa, banantzea edo ezkontza baliogabetzea · Ezkontidearen edo seme-alaben heriotza · Seme-alaben jaiotza, edo adopzio- eta harrera-kasuak · Gaixotasun larria, ebakuntza kirurgiko zaila edo ikasketa ofizialen matrikula ordaintzeko (norbera, ezkontide/ bikotekidea, seme-alaba edo etxean jasota dituen haurrarena) · Ohiko etxebizitza kontserbatzeko beharrezkoak eta ezinbestekoak diren lanak egitea · Altzariak erostea · Lantokia dagoen herrira bizitzera joatea · Premia handiko egoeratzat sailkatu daitezkeen bestelako egoerak. Hezkuntza Sailaren onarpena jaso behar da	6.000€	24 hilabete	6 hilabete

8. IKASIZ HEZI: PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Hezkuntza Sailaren baitan, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleei zuzendutako prestakuntza-jarduerak dira. Hezkuntzako webgunean jasotzen dira deialdia eta prozedurari buruzko dokumentuak: https://labur.eus/IKASIZHEZI

Ikastaro hauen ezaugarri esanguratsuenak honakoak dira:

· On-line zein aurrez aurreko modalitatetan eskaintzen dira.

· Nahi adina ikastarotan izena emateko aukera dago, horien arteko lehentasun-hurrenkera zehaztuz.

· Iraupen desberdina dute ikastaroaren arabera.

· Ikastaroa amaitu eta gainditzean Hezigunean ziurtagiria eskuratu daiteke.

· Ikastaro hauek EPE eta Lekualdatze Lehiaketa prozesuetan puntuatzen dute. Deialdi bakoitzean zehazten da baremoa.

· Edozein zalantzetarako: ikasiz_hezi@euskadi.eus

Eskaera epea	Ikastaroen hasiera data	Eskaerak nondik egin
1. Maiatza - Ekaina	Uztailetik urrira bitarte.	Hezigunea → Prestakuntza-katalogoa (pantailaren goian hiru marratxoetan) → Ikasiz-Hezi
2. Iraila erdialdean	Azarotik ekainera bitarte.	

9. GURE LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK

Ondorengoak dira gure lan-baldintzak arautzen dituzten dokumentuak:

Dokumentua	Edukia
Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua	Urriak 30eko 5/2015 Errege Dekretua. Estatuko langile publikoen lan-baldintzak, eskubideak, betebeharrak eta estatutu-araubidea zehazten dituen oinarrizko araua da.
Euskal Enplegu Publikoari buruzko legea	Abenduaren 1eko 11/2022 Legea. EAEko administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen araubide juridikoa antolatu eta kudeatzeko oinarrizko arau-esparrua da.
Unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzen Dekretu Arautzailea	Abenduaren 30eko 252/2025 Dekretua. Irakasleon "hitzarmena" bezala ezagutzen da, baina izatez, ez da hitzarmen bat, dekretu bat baizik. Bertan arautzen dira gure egunerokoan eragin zuzena duten hainbat gai: erretiroa, ordezkoen baldintzak, soldata, urteko lanaldia eta lan egutegia, enplegua, lizentziak, baimenak, eta abar. **2025eko urtarriletik apirila bitarte 9 greba egun egin ondoren eta mobilizazioak indartsu zeudenean, gainontzeko sindikatuek aldarrikatutako puntuetatik oso urrun geratzen zen aurreakordio bat sinatu zuten Hezkuntza Sailarekin 2025eko maiatzean. Testu definitiboa abenduaren 9an sinatu zuten eta EHAAn 2026ko urtarrilaren 29an argitaratu zen.**
Ikasturte Hasierako ebazpenak	Kidego bakoitzeko ebazpen berri bat eta Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuetarako beste bat argitaratzen du Hezkuntza Sailak ikasturtero. Bertan informazio asko dago: zuzendaritza taldeen hautaketa eta formakuntza, BeA-en funtzioak, curriculumaren garapena, euskara, ebaluazioa, ikastetxeen antolaketa eta plangintza, ikasleen antolaketa, egutegia eta ordutegia, irakasleen antolaketa, urteko eta asteko lanaldia, laneko arriskuen prebentzioa, eta abar luze bat.
Ordezkoen araudia	2026ko maiatzaren 11ko Agindua. Ordezko eta bitarteko langileen zerrenden kudeaketa arautzen du. Hainbat eranskin garrantzitsu ere baditu: I.an Birbaremazioan aplikatzen den baremoa zehazten da; II.ean kidego eta espezialitateak; III.ean espezialitate bakoitzean izena eman ahal izateko beharrezkoak diren titulazioak jasotzen dira.
Prozesu administratiboen deialdi edo aginduak	Oro har, prozesu administratibo bakoitzak bere araudi propioa du. (Lekualdatze Lehiaketak, EPEak, Zerbitzu Eginkizunak, etab). Deialdi edo agindu horietan zehazten dira prozesu bakoitzaren kudeaketa nola egiten den eta baita, dagokionean, aplikatuko den baremoa ere.

10. ELA SINDIKATUAREN EZAUGARRIAK

ZEIN DA ELA SINDIKATUAREN ZEREGIN NAGUSIA?

Langile klasea antolatzea, gure kasuan irakaskuntza publikoko langileak, irakasleon lan eta bizi baldintza duinak borrokatu eta defendatzeko.

Horretarako, negoziazio kolektiboaz baliatzen gara. Eta zer da hori?

- Irakasleon lan-baldintzak hitzarmen eta akordio desberdinetan arautzen dira.
- Hitzarmen eta akordio horiek mahai negoziatzaileetan adosten dira.
- Hori dela eta, sindikatu bezala tresna bakarra dugu negoziazio kolektiboa baldintzatu eta bertan eragiteko: **LANGILEAK**. Langileak antolatzea, langileak mobilizatzea eta indar korrelazioa gure alde jartzea Hezkuntza Saila mugitzera behartzeko.

ZERK DEFINITZEN GAITU SINDIKATU BEZALA?

- ✓ **ELA Hego Euskal Herriko sindikaturik indartsuena da**: 104.000 afiliatu baino gehiago ditugu eta ordezkaritzaren %36a gurea da Hego Euskal Herrian (%40tik gorakoa EAEn). Irakaskuntza Publikoaren kasuan, gaur gaurkoz, hirugarren sindikatua gara. 4 urtetik behin Hauteskunde Sindikalak ditugu eta gure ordezkaritza maila handitzeko lanean ari gara, irakaskuntza publikoan ere benetako borroka eraginkorrak martxan jarri ahal izateko.

- ✓ **Afiliazioak sostengatzen duen proiektua da ELA**: sindikatuaren finantzazioaren %90a afiliatuen kuotetatik dator. Horrek autonomia ematen digu langileen interesak defendatzeko, ez baikaude gobernuen, alderdi politikoen edo dirulaguntzen menpe. Afiliazioa da ELAren indargunea.

- ✓ **ELA sindikatu abertzalea da**: sindikatuak euskal errepublika baten alde egiten du, Euskal Herriaren burujabetza lortzeko. ELAk argi du Euskal Herriaren etorkizuna ezin dela Espainiar eta Frantziar estatuen menpe eraiki, horregatik, esparru guztietan burujabetza eskuratzeko borrokak zentraltasuna hartu behar duela defendatzen du. Langile klasearen eta gure herriaren askatasuna helburu, burujabetzarako borrokan eragile aktibo izaten jarraituko du sindikatuak.

- ✓ **ELA klase sindikatua da:** langile klase guztia ordezkatzen dugu, sektore eta kolektibo guztietakoak. Ez dugu lan munduko sektore bakoitza modu isolatuan ulertzen. Interes indibidualen prebalentziak (horrela ulertzen ditugu sindikatu korporatiboak) langile klasea ahultzen du eta interes kolektiboak alboratzen ditu. Kapitalismo berak sustatzen duen indibidualismoaren prismatik sortutako erakundeak dira. Tamalez sektore publikoan asko ematen den sindikalismo mota da.

- ✓ **ELAk hezkuntza sistema bakarra, publikoa, burujabea, euskalduna eta anitza nahi du**: egungo sare banaketa gaindituko duena, burujabea dena Espainia eta Frantziaren eredu uniformatzailetik zein kapitalaren eta enpresen nahi pribatuengandik, Euskal Herria erreferentzi-marko gisa duena, eta bizikidetzarako balioen transmisioa egingo duena (hezkidetza, naturarekiko errespetua, herrikideekiko errespetua...) baina era berean ikasleei ikuspegi kritikoa izateko gaitasuna emango diena.

- ✓ **Langileekiko hurbiltasuna oinarria da ELAn**: Hego Euskal Herriko 43 herritan ditugu bulegoak eta, Hezkuntzaren kasuan, eskualde bakoitzean liberatu-talde bat gaude, eskualde horretako ikastetxeekin eta afiliatuekin harreman zuzena dugunak.

- ✓ **Sindikatuaren babesa ematen diogu afiliatuei**:
  - Eguneroko gaiei buruzko zalantzak argitu, erreklamazioekin lagundu etab.
  - Zerbitzu juridikoak eskuragarri dituzte: aholkularitza, gorako helegiteak, etab.
  - **Erresistentzia Kutxa:** ELAren borrokek duten eraginkortasuna azaltzen duen gakoa da. Gizartean oso ezaguna da elkartasun tresna hau. Afiliatu bakoitzak ordaintzen dugun kuotaren laurden bat kutxara doa. Diru hori greban dauden langileengana bideratzen da, langileek borrokan jarraitu ahal dezaten akordio on bat sinatu arte.

Jarraitu ELA Hezkuntzaren sareak!

ELA IRAKASLEAK EAE

ELA Hezkuntza EAE

ELA Hezkuntza

ELA Hezkuntza

Irakasleon gida